

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2011ko otsailaren 8a. VIII. urtea. 2.170. zenbakia. [www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)



Villabonako Euskal Herrian Euskarazek Donostiako manifestaziora joateko eskatu du. J. A. IMAZ

## Tolosako San Blas auzoko jaietan euskal kultura izan da protagonista

Atzo amaitu ziren ospakizunak; dantzariak, aizkolariek, bertsolariek eta trikitilariak osatu zuten jaien azken eguneko egitaraua 04



Mendiluze eta Arzallus. ITZEA URKIZU

## Manifestaziora joateko eskatu dute Villabonako euskaltzaleek

Euskal Herrian Euskarazek nazio mailako martxa antolatu du hilaren 12an, Donostiako Boulevard-etik 17:00etan irtengo da

Villabonako EHEek eta Bai Euskal Herriari herri ekimenak euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatu eta deialdiarekin bat egin dute 03

## Tolosako haurrek eskola berria dute Abastosen

0-2 urte bitarteko 56 haur hasi dira; maiatzean berriro irekiko dute matrikulazio epea 02



Komunikabideek haurreskola ikusteko aukera izan zuten. HITZA

## Ibarrako gizonezkoak bigarren eta emakumezkoak hirugarren

Euskal Herriko Sokatira Txapelketaren jardunaldi berri bat jokatu da asteburuan; gizonezkoak 640 kilotan aritu dira eta emakumezkoak 540ean 06

**Konfiantzan, Ikastola**

**Anoetako Herri Ikastola**  
943 65 29 32  
[www.anoetakoherrriikastola.net](http://www.anoetakoherrriikastola.net)

**Irurako Ikastola**  
943 69 43 74  
[www.irurakolikastola.net](http://www.irurakolikastola.net)

**Jesusen Bihotza Ikastola (Villabona/Zizurkil)**  
943 69 23 21  
[www.jesusenbihotzaikastola.com](http://www.jesusenbihotzaikastola.com)

**Laskorain Ikastola (Tolosa)**  
943 69 71 22  
[www.laskorainkastola.net](http://www.laskorainkastola.net)

**Tolosako Inmakulada Ikastetxea**  
943 67 36 29  
[www.inmakuladatolosa.com](http://www.inmakuladatolosa.com)

**Uzturpe Ikastola (Obarra)**  
943 67 12 99  
[www.uzturpe.net](http://www.uzturpe.net)

**Aurrematrikula**  
Epea Urtamariaren 31tik Otsailaren 11ra  
Ordutegia 09:00-12:30 / 15:00-18:00

**TOLOSALDEKO IKASTOLAK**



Jolasleku estalia izango du haurreskola berriak. I. URKIZU

# Haurreskola berria martxan da Abastos eraikin birmoldatuan

Hil honen bukaeran izango da inaugurazio ofiziala, haur, guraso nahiz herritarrentzat

## Itzea Urkizu

Atzo hasi ziren lanean Abastos eraikin eraberrituan egin duten haurreskolan. Orain arte Berazubi auzoan zegoen haurreskola ordezkaturako du honek, eta «herriaren bihotzean» kokaturako da.

Udal ordezkariak adierazi duteenez, Voith-eko zonaldearen garapena dela medio, herriaren erdigunea nolabait lekualdatu egin da, eta Alde Zaharrentzat egin du. Beraz, haurreskolaren kokapen berriak «aukera emango du sektore berrientzako beste zerbitzu batzuk indartzeko eta handitzeko».

Haurreskola berriak 0 eta 2

urte bitarteko 71 haurrentzako lekua du, eta jada 56 haurrek eman dute izena bertan. Arduradunek adierazi dutenaren arabera, maiatzean berriro irekiko dute matrikulazio epea irailean, urrian eta azaroan eskolan hasiko diren haurrentzat.

**Eraikinaren beheko solairuan** Haurreskolak Abastos eraikinaren beheko solairu guztia hartuko du oraingoz, 743 metro karratuko azalerarekin. Dena den, goiko solairuaren erdia ere haurreskolaren etorkizuneko hazkuntza baterako izango da.

Eraberrituriko guneari dagokionez, sarreran hiru gune izango ditu ume-kotxeak uzteko. Eraikinaren erdialdean berriz, patio estali moduko bat izango da, eta bertan jolaslekua izango dute haurrek. Jolaslekuaren alboan, psikomotrizitate-gela izango da, eta beste hainbat ekintzetarako ere erabiliko dute. Haurrentzako zazpi gela izango dira, komun eta logela konpartituekin, eta txikiak garbitzeko bainontzi egokituak izango dituzte komunek. Sukalde guztiz osatua ere izango du haurreskolak, sarrera independentearekin. Azkenik, hezitzaile-

ek euren gune propioa izango dute bulego, aldagela, komun eta garbiketela gelaekin; sarrera independentea izango du honek ere.

## Energia berriztagarriein

Haurreskola berria egiterakoan, «ingurumena zaintzeari begira» aritu dira lanean arduradunak, eta horren seinale da eraikinean energia berriztagarriek izango duten lekua. Zoru bero-emaille bidezko berokuntza sistema izango da gela guztietan, sukaldean izan ezik; hemen gas naturala erabiliko dute. Zoru hau oso egokia da haurreskolarako, sarri umeak hanka-hutsik ibiliko baitira jolaslekuan. Era berean, lau eguzki-plaka jarriko dituzte eraikinean.

Abastos eraikinaren birgaitze-lanekin batera, beste lan bat ere egin dute Plaza Berrian. Haurreskolako eraikinean bertan, Plaza Berriko lur azpiko aparkalekuetarako sarbidea egiten ari dira. Modu honetara, gaur egun plazako haur-parkearen ondoan dauden eskailerak eta igogailua kendu egingo dituzte. Arduradunek Inauterietarako lanak amaituta egongo direla nabarmendu dute.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)



Erbilera anitzeko gelak ere izango dira haurreskolan. HITZA

## Gutunak

### Urtarrilaren 27ko grebaren ondoren, borroka jarraitu egin behar du.

Urtarrilaren 27ko greba orokorra beste behin erakutsi du langile klaseak eta gazteriek duten borondatea kalera eta borrokara ateratzeko. Hala ere, egun berean, CCOO eta UGTko agintariek akordioa sinatu zuten PSOEren gobernuarekin eta enpresariekin. Asteetako negoziaketak iruzurraren ondoren, CCOO eta UGTko agintariek ontzat jo dute langile mugimenduan atzerakada ikaragarri bat suposatzen duen pentsioen kontraerforma. Bankarien eta enpresariaren interesetara makurtuta dagoen PSOEren gobernuari babesa emanez, CCOO eta UGTko agintariak jarraitzen ari diren bideak eraso berriak etortzea errazten du.

Langile klasearen eskubideak borrokarekin eta sakrifizio handiekin lortu dira soilik. Hau da langile mugimenduaren esperientzia. Beren eskubideak eta lorpenak defendatzeko langileek duten borondatea erabat baieztatuta dago. Hori ikusi dugu urtarrilaren 27ko Galiziako eta Euskal Herriko greba orokorretan, Ipar Euskal Herria eta Estatu frantziarrean, Grezian, Portugalen eta orain herri arabiarretako iraultza zoragarrietan. Hego Euskal Herria kenduta, irailaren 29ko greba orokorra ere jarraipen handia izan zuen Galizian, Katalunian eta Estatu espainiarrean. Baina CCOO eta UGTko agintariek kapitalismoaren logika onartu dute, eta mobilizazioak eta langileen borrokarako konfiantza bultzatu beharrean PSOEren gobernuaren eta patronalaren erasoak babestea erabaki dute. Ez da beraz harrizkoa sindikatu hauetako delegatu eta afiliatu askok politika sindikal honi gogor aurre egitea eta urtarrilaren 27ko grebetan (Galizian eta Hego Euskal Herria) parte hartu izana. Sindikalista eta langile horiek oso lan garrantzitsua dute egiteke: CCOO eta UGT

barruan sindikal gintza borrokari eta demokratiko bat defendatu eta estrategia sindikala erabat aldatu. Horregatik, garrantzitsua zen gehiengo sindikalak CCOO eta UGTri U-27ko greban parte hartzeko dei publikoa egitea. Nahiz eta sindikatu bateko agintariak politika okerrera eramaten egon (kasu honetan bezala, edo fabrika batetako gatazkan...) beharrezkoa da ekintza sindikalaren batasuna eta sindikal gintza borrokalaria bultzatzea. Hau beti lortzea ezinezkoa izango da noski, baina funtsezkoa da etengabe bide horretan lan egitea, batasuna eta borroka nahi ez dutenei aitzakiak kenduz. Hori da langile guztien batasuna lortzeko eta estrategia sindikal desmobilizatzailerik aurre egiteko modua. Ekintza sindikalaren batasunarekin eta langileek borrokarako duten borondatearekin posible da erasoerik aurre egitea. Helburu honetan, urtarrilaren 27ko greba orokorraren konbokatoria pauso garrantzitsu bat izan dela uste dugu. Baina urtarrilaren 27ko greba orokorrak jarraipena izan behar du, langile klasearen antolakuntza maila eta kontzientzia igoko dituen goranzko borroka prozesu batekin. E-29ko eta I-29ko greben ondoren gauza bat bista-koa da: bi greba orokorrek lan erreforma ez bazen geratu, beharrezkoa da kapa berriak mobilizazioa erantsiko dituen eta sendotasun gehiago emateko denboran zabalduko den estratgia. Burgesiaren planak gertatzeko beharrezkoa da ekintza plan erabateko bat, eta orain agintari sindikalek plan horretan 48 orduko greba orokor berri baten konbokatoria sartu behar lukete gure ustez. Langile klaseak mobilizazioan oinarritutako sindikal gintza behar du, borrokalaria eta demokratikoa, eta kontraerreformen eta erasoen aurkako borroka sozialismoaren aldekoarekin lotuko duena.

■ **Euskal Herria Sozialista.**

## → Laburrak

### Karabinaz balkoitik tiroka aritu zen gizona aske

**GIZARTEA** ▶ Pasa den urtarrilaren 30eko goizaldean Tolosako Ertzaintzaren egoitzan hiru salaketa jarri zituzten, Alde Zaharreko balkoi batetik baltaxo-kolpeak jasotzeagatik. Dirudienez gizon bat, etxe barneko argiak itzalita, karabina hartu eta balkoitik tiroka aritu zen. Ertzaintzak gizonaren etxebizitza miatu zuen, eta bertan

aurkitu zituen bai karabina, baita baltaxoak ere. Ondoren, gizona atxilotua izan zen. Atxilotuak aurrekari polizialak ditu, eta epailearen aurretik pasa ondoren, aske geratu da.

### Txaranga guztientzako bilera bihar, Kultur Etxean

**AISIALDIA** ▶ TIs bat-ek eta jai batzordeak txarangentzako bilera antolatu dute otsailaren 9rako. Bileran 19:00etan izango da Tolosako Kultur Etxean, eta antolatzaileek txaranga guztietako ordezkariak bilerrako deia luzatzen diete.



### Tolosako Udala

**IRAGARKIA**

Tolosako Udalak 12 TRAFIKO LAGUNTZAILE hautatu behar ditu Udaltzaingorako, Inauterietan jarduteko (martxoaren 6an, igandea; 7an, astelehena; eta 8an, asteartea). Oinarriak eta eskaera egiteko orriak, Tolosako Udalteko Informazioa eta Erregistro Zerbitzuan daude interesatuen eskura, Plaza Zaharrrako 6 A zkan, edota udaleko web orrian ([www.tolosakoudala.net](http://www.tolosakoudala.net)). Eskaerak aurkezteko epea 2011ko otsailaren 16an, 13:00etan, bukatzen da. Tolosan, 2011ko otsailaren 2an. **ALKATEA** Jokin Bildarratz Sorron

→ **Laburrak****Oinezkoen zubia ezingo da erabili bihar goiza bitarte**

**VILLABONA** ▶ Udaltzaingoak jakinarazi duenez, oinezkoen pasabidean lanak burutu behar dituzte. Zoru irristakorren aurkako tratamendua eman behar diote eta hori dela eta, ezingo da zubia zeharkatu. Lan hauekin atzo hasi ziren eta udaltzaingoaren arabera eta guztia ongi joanez gero, asteazkena, hilak 9, goizeko 09:00ak bitarte ezingo da erabili oinezkoen pasabidea.

**Igerabide lagun dutela irakurle taldea martxoan**

**ADUNA** ▶ Irakurle taldea osatu nahi dute eta Juan Cruz Igerabiderek inbertulian arituko dira Adunan. Martxoaren 1ean, asteartean, 19:00etatik aurrera elkartuko dira liburutegian. Bertara joan aurretik ordea, *Helena eta arrastari* liburua irakurri beharko da. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak, tertulia honetara herritar guztiak gonbidatu nahi izan ditu.

# Euskal Herrian Euskarazek deitutako manifestazioari babesa, Villabonan

Larunbatean 17:00etan Donostian abiatuko da 'Sasi guztien gainetik euskaldun eta burujabe' lelopean Boulevardetik

**Eneritz Maiz** Villabona

Euskal Herrian Euskarazek deitutako larunbatean, Donostiako Boulevardetik abiatuko da 17:00etan nazio manifestazioa. Euskal Herriko beste hainbat herrietan bezala, Villabonan ere babesa agertu diete. Herritar eta eragileek, bertako Euskal Herriaren Euskarazekin batera, deialdiarekin bat egin dute. Eta larunbatean Donostiara joateko deia luzatu zuten.

*Sasi guztien gainetik euskaldun eta burujabe* lelopean, Donostiako kaleak zeharkatuko dituzte eta horren ostean, Txillardegiri omenaldia egingo diote.

Euskal Herrian Euskaraz hitzetan, «Hizkuntza komunitate



Villabonan, EHE-ek deitutako manifestazioari babesa emateko hainbat herritar elkartu ziren, larunbatean. A. IMAZ

minorizatu da euskal komunitatea, Euskal Herrian bizi garen hiru milioi biztanletatik laurdunak baino ez dakigu euskaraz. Euskal hiztun guztiak gara gaztekeraz edo frantseseraz elebidun, mendeetako asimilazio prozesuaren ondorioz euskaldun elebarkarisga bizitzea ezinezko bihurtu on-

doren. Euskaraz betetzen zuten funtzio guztiak erdarek betetzen dituztenez, euskaldunok bigarren mailako herritarrek gure herrian» diote.

Era berean, «erasoak eraso euskaldun izateaz harro, garena izaten jarraitzeko nahia eta gogo askotan erakutsi dugu euskaldu-

nok» eta «euskaldunak eta Euskal Herriak burujabe» izan behar dutela aldarrikatzen dute. «Euskalduna eta burujabea. Biak dira aldaketan hauen oinarriak» azpimarratzen dute.

Bai Euskal Herriari ekimenak ere, bere babesa eman dio nazio manifestazio honi.

**Gutuna**

## Euskara askatasunean? Ekin diezaiozun lanari

«Itxaropenez betetako garaia da gurea. Bortizkeriaren bukararekin amets egitera ausartzen gara. Espero dugu laster minbizi hau iraganeko kontua izatea. Horrek bide berriak urratu eta gauzak asko erraztuko dizkio euskalgintzari. Euskarak bat egingo du, behin betikoz, askatasunarekin». Zurrumbilo handia sortu duten hitz hauekin egin zigun harrera urtarilaren azken astean Euskal Autonomia Erkidegoko Lehendakari jaunak Euskararen Aholku Batzordeko kideoi.

Astebete igaro da hitz mingarriok bota zituenetik eta aukera izan dugu hamaikatzok iritzi artikulua eta komentario irakurtzeko. Hamaikatzok analisi entzuteko. Gehienek hitzok deitoratu dituzte, Lehendakari jauna bera piztutako kritikei era baldar baten erantzuten saiatu den arren. Era baldarrean, Euskararen Aholku Batzordean botatutako esaldi iraingarriei egindako kritikei dagokienez, «errealitatekanpo dagoen asmo txarreko irakurketa bat egin nahi izan dutela bere hitzekin» adierazi baitu egun batzuk geroago. Hausnarketarako tartea izan ostean, euskara borroka politikorako erabili nahi izatea leporatu die kritika azaldu dietenei... berak adierazi duenean «indarkeria

Euskadiko erreferente guztieta- ra lotu duen jendea egon dela, euskarara barne».

Baina, ez al da hori euskara politizatzea? Izan ere, -eta berak dioen bezala- indarkeria Euskadiko erreferente guztieta- ra lotu duen jendea egon bada, zergatik ez aipatu bestelako erreferenteak? Zergatik ez aipatu finantza mundua? Edo Osakidetza? Edo kirola? Edo merkataritza arloa? Ez al da hori euskara borroka politikorako erabiltzea?

Euskara eta askatasuna. Hitz ederrak benetan. Udalerrri euskaldunetan hitz horiek uztartuta dauzkagu. Gure udalerrietan ideologia guztietako herritarrek gara euskaradunak. Eta euska-

raz, askatasunean hitz egiten dugu udaletxean, dendetan, tabernetan, medikuarenean... be- tiere askatasun hori urratuko digun erakunderik (hobeto esan, hizkuntza politikaririk...edo hizkuntza politika egokia egin be- harko lukeen politikaririk) egon ezean!

Euskararen legea 30 urte be- tetzeaz dagoen honetan, zelan da posible oraindik euskaldunoi hizkuntza eskubideak urratzea? Zelan da posible hainbat esparrutan euskaraz aritzeko aska- tasunik ez izatea? Zelan da po- sible medikuarenean euskaraz aritzeko eskubidea oraindik ber- matu barik izatea? Edo epaite- gietan euskaraz atzerriko hiz- kuntzen maila izatea? Edo gi-

zarte segurantzaren modernizatu honetan "Red sistema" berria euskaraz erabiltzeko askatasu- nik ez izatea? Edo seme-alabak euskaraz erregistratzeko arazo- ak izatea? Edo enpresa pribatu -zein publiko- ugarietan euska- raz askatasunez aritzea ezinez- koa izatea? Edo...

Zoritxarrez, zerranda amaiga- ba horretan beste hainbat eta hainbat adibide erantsi geneza- ke. Izan ere, hizkuntza bati aska- tasun eza batez ere hizkuntza politika gidatzen (eta gidatu izan) dutenek ekartzen diote.

Igaro dira hiru hamarkada euskararen legea onartu zene- tik. Garaia da euskara aske izan dadin esparru guztietan. Garaia da euskaradunok geure hizkun-

tza hitz egiteko askatasuna izan dezagun esparru guztietan. Guzti-guztietan.

Euskararen arnaguneak di- ren udalerrri euskaldunetako he- rritarrok hizkuntza politika au- rreratuak nahi ditugu. Guk geuk, askatasunean eta inork mutur- ra sartu gabe, onartutako hiz- kuntza politikak. Bada garaia bakoitzak beregain dituen ardu- rak hartzeko. Udalerrri Euskaldu- nen Mankomunitateko ardura- dun politikook prest gaude ditu- gun ardurei ekiteko. Era berean, prest gaude bide horretan gai- nontzako erakundeei ahal du- gun neurrian eskua luzatzeko. Euskarak bat egiteko, behin be- tikoz, askatasunarekin.

■ **Jon Bollar Intxausti.** UEMAKo le- hendakaria eta Euskararen Aholku Batzordeko kidea.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Iragarki laburrak

**ALOKAIRUA**

■ **Ile apaindegia.** Alegian, ile apaindegi bat alokatzen da. Interesatuek deitu 665 70 82 08 telefono zenbakira.

**SALGAI**

■ **Egongela osoa.** Bi sofa, hiru mahai, lau aulki, hiru lanpara eta alfombra. Guztia berri- berria dago, sofak izan ezik.

Prezioa: 450 euro. Interesatuek deitu 685 73 25 30 telefono zenbakira.

**LANA**

■ **Garbitzailea.** Tolosaldeko os- talaritza enpresa batek, garbi- tzailea behar du. Interesatuek Curriculun Vitae-a *ibanmu- noa@hotmail.com* helbidera bi- dali beharko dute.



**Tolosa**



**AMAITU DIRA SAN BLAS AUZOKO JAIAK**

Asteazkenean hasi eta igandean amaitu ziren San Blas auzoko jaiak. Igandean, eguraldi bikaina izan zuten festei amaiera emateko. Bertaratu zirenek Amaroako dantzarien emanaldiaz gozatzeko aukera izan zuten. Gainera, eguerdian auzokolariek eta bertsoariak ere izan ziren festa giroa are gehiago gozatzeko. Festei Elustondo anai-arreben emanaldiarekin eman zieten amaiera. [LURU2](#)

HITZAren eskutik

**"Izan, egin, eragin. Euskal Herrian Euskaraz"**  
 DOCUMENTAL DVD FORMATUAN

EHEren 30 urteko historia, Irigana gogorren historia, etorkizuneko errotak murrizteko.

**10€**

EGIN ESKAERA  
 otsailaren 13a baino lehen  
 harpidetza@hitza.info  
 902-82 02 01

**berria**  
 taldea

**Ibarra**



**SENDI EKINTZA EGUNA IBARRAN**

Sendi-Ekintza elkarteak hirugarrenez ospatu zuen bere eguna larunbatean. Egun guztian zehar, haur eta helduei zuzendutako hainbat ekintza izan zituzten. Eguraldi ona lagun zutelarik, arra-

tsaldean Ibarra eta inguruko herrietako haurrek kroso herrikolan parte hartu zuten. Ekitaldi hau izan zen jendetsuena, korrikalariak gain ikusle asko ere bertaratu baitziren. [LURU2](#)

**Tolosa**



**TOLOSAN ZUHAITZAK NAGUSI**

XVI. Zuhaitz eguna izan zen larunbatean Tolosan. Bertan, mota askotako lore, landare, zuhaitz eta zuhaitzak toan ziren erakusgarri. Goiza hotz hasi zen, baina eguerdi aldera tenperatura goiztiar zehar heinean, gero eta jende gehiago kusi zitekeen Tolosako kaleetan. [LURU2](#)

**Tolosaldea**



**MAKILEN KOLPEKIN OSPATU DUTE AGATE DEUNA**

Eskualdeko hainbat herritan Agate Deuna bezpera ospatu zuten, eta ohiuratu jarraituz koplak abestuz eta makilen kolpekin ospatu zuten. Alegian, goizean eskolako haurrak plazan bildu ziren koplak kantatzeko. Ikaz-

tegiaren herriko emakume talde bat Toki-Alaitik atera zen abestera. Eskolan koplak batzuk abestu ondoren, baserri baserri bildu ziren eskolan. Egunari amaiera on bat emateko sagardotegian afaldu zuten eskolariek.

Tolosan, Lizardi elkarteak ibili ziren kantuan. Beraien egotziak atera eta herriko kaleetan zehar aritu ziren kantuan. Eskualdeko beste herri eskolan ere aritu ziren koplak abesteri. [LARRA/ERAZ/URRU2](#)

**Bidegoian**



**FRONTOIAREN INAUGURAZIOA**

Larunbatean inauguratu zuten Bidegoiango Golatz auzoko frontoia. Aureskua dantzatu ondoren, 11:00etan Pello Arza Ius alkateak eta Rafael Urribaren Landá ingurunearen Garapenerako

dirautatuak zinta moztu zuten. Alkatearen eta dirautatuaren hitzen ondoren pilota partidak jokatu zituzten. Hauxe amaitutakoan mokadutxo bat jateko aukera ere izan zen. [HTZ](#)

**Amezketan**



**LEGALIZAZIOA ESKATZEKO ELKARRETARATZEA**

Ekier abertzalearen legalizazioaren inguruan delitu diren mobilizazioen baitan, Amezketan elkarretaratzera egin zuten ostraletan 19:30ean. Abaltzisketako bidegorritzean, Gero kartelak itsatsi zituzten herrian zehar. [HTZ](#)

**PILAR GOYA ESTETIKA ZENTROA**

- Diodo laserra (gizonko koentzai eta emakume koentzai)
- Aurpegi-tratamenduak
- Zimurren betegarri-tratamendua ama zelulekin:
- Urrezko xafak
- Azalaren aholkularitza dosan
- Oinon eta eskuan tratamendu eta edertasuna (raspen luzeko esmaiteak)
- Solarium bertikala, 10 minutu
- Solarium horizontala, 20 minutu
- Baiuen aurrekontua eskatu
- Depilazioa erabilera bakarreko argizariarekin

Errota 2. behean • Villibona  
 Tel.: 943 69 13 66

**Kirolak**

**↓ Emaitzak**

**PILOTA**

**BINAKAKO TXAPELKETA**  
**Lehen maila**  
**Olaizola I-Beloki** 9  
**Bengoetxea VI-Patxi Ruiz** 22  
 Irujo-Merino II 14  
 Xala-Barriola 22

**Bigarren maila**  
 Gorra-Merino 22  
**Jaunarena-Larrinaga** 19  
**Olazabal-Galartza** 8  
 Apezetxea-Cecilio 22  
**Olaetxea-Albisu** 22  
 Diaz-Iza 14

**EUSKADIKO TXAPELKETA**  
 San Miguel 6  
**Aburuza (Aurrera-Saiatz)** 18  
**Zelaia (Aurrera-Saiatz)** 7  
 Erreka 22  
 Erreka 20  
**Mujika (Aurrera-Saiatz)** 22  
**Biain (Aurrera-Saiatz)** 15  
 Huarte 22  
**Zubiri (Aurrera-Saiatz)** 13  
 Usansolo 22  
 Aldabide 1  
**Mujika-Iruretagoiena(A-S)** 22  
 Pilotajouko 22  
**Sukia-Galarraga (A-S)** 7  
 Paz Ziganda 22  
**Arratibel-Labaka (A-S)** 19  
 Zaramaga 22  
**Urbietza-Galarraga (A-S)** 19  
 Ataun 7  
**Iñaki-Ander (A-S)** 18  
**Joseba-Oñaitz (A-S)** 8  
 Ataun 18  
 Lapke 3  
**Iban-Aitor (A-S)** 18

**SASKIBALOA**  
**LEHEN MAILA**  
**Hamaseigarren jardunaldia**  
**Take Bide Bide Ibiza** 73  
 Padura 65  
**Sailkapena**  
 1. Fundacion Baskonia (12-4)  
 2. Lizuan.com (10-6)  
 3. Goierri-Verkol (10-6)  
**7. Bide Bide Ibiza (7-9)**

**SOKATIRA**

**EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA**  
**Gizonezkoak, 640 kilotan finala**  
 1. Sokarri  
**2. Ibarra**  
 3. Abadiño  
**Emakumezkoak, 540 kilotan ligaren azken sailkapena**  
 1. Badaiotz  
 2. Sakana  
**3. Ibarra**

**ARETO FUTBOLA**  
**NAZIONAL B MAILA**  
**17. jardunaldia**  
**Laskorain Ikastola** 4  
 Ceramicas Nogales Zarautz 1  
 Donos. Zuzen./Naturgas E. 1  
**Transportes Lakunza** 2  
**Irish Pub Sheperd 's** 3  
 Clinica Dental Aldaz 5  
**Sailkapena**  
 1. Concepto-Createch (46 p.)  
**2. Laskorain Ikastola (41 p.)**  
**8. Transportes Lakunza (23 p.)**  
**11. Irish Pub Sheperd 's (17 p.)**

**FUTBOLA**  
**ERREGIONAL OHOREZKO MAILA**  
**21. jardunaldia**  
 Berio 1  
**Tolosa** 2  
**Sailkapena**  
 1. Pasajes (46 puntu)  
 2. Hernani (45 puntu)  
 3. Real Union Club (43 puntu)  
**8. Tolosa (32 puntu)**

**ERREGIONAL PREFERENTEA**  
**18. jardunaldia**  
**Tolosa 'B'** 3  
 Antzuola 3  
**Intxurre** 2  
 Getariako 2  
**Sailkapena**  
 1. Elgoibar (41 puntu)  
**8. Tolosa B (27 puntu)**  
**15. Intxurre (15 puntu)**



Ibarrako tiralariak aurreko jardunaldian, Ibarran, esfortzu beteetan. HITZA

# Ibarrak bigarren egin du gizonezkoen 640koan

Sokarraren atzetik sailkatu ziren finaleraino; emakumezkoetan, 540 kilokoan, hirugarren amaitu du Ibarrak

**Erredakzioa** Ibarra

Final borrokatuaren ondoren, Ibarrak bigarren postua lortu du sokatirako gizonezkoen 640 kiloko mailan. Eugenio Lopetegik Ibarrako soka tira sustatzaileak azaldu duenez, «taldea oso ondo aritu zen. Sei talde geunden eta horietatik hiru edo laurak irabazi zez-

keen txapelketa». Sokarrik lortu zuen txapela lehenengo aldiz eta Ibarraren ondoren Abadiño sailkatu zen.

Lopetegik dioenez, Ibarrak «bere maila eman zuen. Horrelako final batean zorte pixka bat ere izan behar da. Alde handia egiten du tiraldiak zeinen kontra tokatzen zaizkizun». Ibarra eta Abadiño puntuetara berdinduta ziren, eta kitarakoa jokatu behar izan zuten bigarren postua erabakitzeko. Bi tiraldiak irabazi zituzten ibarretarrek eta zilarrezko domina etxeratu zuten.

Gizonezkoen hurrengo lehiaketa 600 kiloko mailan izango da.

«Lehiaketa estua izango da», azaldu du Lopetegik, «talde askok parte hartuko baitute maila horretan».

**«Etorbizuneko» taldea**

Emakumezkoen 540 kilo mailan Ibarrak hirugarren postua lortu zuen bai asteburuan jokatuak azken jardunaldian, baita sailkapen orokorrean ere. Lopetegik esandakoaren arabera, «lehenbiziko jardunaldian ondo aritu ziren. Gero lesioak etorri dira eta jendearen aldetik justu xamar ibili dira». Lopetegik gaineratu duenez, «etorkizuneko taldea da» emakumeena.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak urteurrenak eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**HILETAREN BALIOA Txina Inperiala**

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neuniko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzan diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

**FUNERARIA VASCONGADA**  
 EHORZKETAK  
 902 402 900  
 www.funerariavascongada.com

# Rekondo lehiatik at eta Saralegi txapelaren bila

Urrezko Aizkolarien txapelketan Jon Rekondok ez du aurrera egin eta ez du finalerdia jokatu

## Erredakzioa

Finalerdietara pasatzea zegoen jokoan eta Jon Rekondo leitzarra eta bere bikote Arria V. a bigarren geratu ziren Elgoibarren jokatu-tako final laurdenetan. Azurmendik eta Atutxak lortu zuten txartela, beste bi bikoteei alde nabarmena atereaz. Faboritoak ziren

eta aurreikuspenak bete zituzten bi aizkolariek.

Lanak 21 minutu eta 54 segundotan bukatu zituzten Azurmendik eta Atutxak. Rekondo eta Arria V. a bigarrenak izan ziren. 23 minutu eta 10 segundo behar izan zituzten lanak amaitzeko. Lehian izan zen hirugarren bikotea, Erasunek eta Lopezek osatutakoa, kanporatua izan zen epaileen gomendioei kasu ez egiteagatik.

Finalerdiak erabakita gelditu dira eta eskualdeko ordezkaritza izango dute. Hilaren 13an, Arropide leaburuarra eta Mugertza II.a Munitibarren (Bizkaia) ariko

dira Nazabalen eta Jauregiren aurka finalerako txartela lortzeko asmoz. Beste finalerdia hilaren 20an izango da Espejon (Araba) eta bertan Donato eta Oihan Larretxeak aurrean izango dituzte Azurmendik eta Atutxa.

## Finalak, hilaren 27an

Bai nagusien mailako finala bai gazteena hilaren 27an izango da Azpeitian. Dagoeneko Eneko Saralegi leitzarrak lortu du finalerako txartela, asteburu honetan Vicente II. arekin batera Lopezi eta Ussiari irabazi baitziren Legutianon (Araba) jokatu-tako norgehiagokan.

# Laskorainek Ceramicas Nogales mendean hartu du

Tolosarrek 4-1 irabazi diete eta bigarren postuari eusten diote; bigarren zatia zailagoa izan dute horitxoek

## Gorka Amatriain Tolosa

Astebeteko geldialdiaren ondoren, garaipen berri batekin berrekin dio Laskorainek txapelketari Zarautzeko Ceramicas Nogales aspaldiko ezagunaren aurka eta beste jardunaldi batez bigarren postuari eutsiko dio sailkapenean.

Ordutegiakin izandako zenbait gorabehera direla eta, 30 minutuko atzerapenarekin eman zitzaion hasiera norgehiagokari joan den larunbatean baina kontuak-kontu eta azkenean epaile bakarrarekin jokatu behar izan bazen ere, istilu eta aitzakiarik gabeko garaipen berri bat poltsikoratu du taldeak bere estatistiken taularako.

Lehen zatia nabarmenki horitxoek ezarritako legearen arabera jokatu zen, isilunean baina larregi sufritu barik aurreratu ziren etxeok, Joniko eta Bellosoren bitartez 2-0eko abantaila motza eskuratuz. Beste aparteko gertaldirik gabe erretiratu ziren aldagelara bi taldeak baina erabateko lasaitasunaren helburua urrun zegoen oraindik.

Bi goletako errenta huskeria izan ohi da beti areto futbolearen teoria zahar honen edukieran

jakitun, bigarren erdian kanpotarrek beste marxa bat sartzeko erabakia hartu zuten. Horitxoek minuturik zailenak 2-1eko golarekin iritsi ziren baina Aratz atezainak egindako geldituek kezka larriagoak ekiditea lortu zuten. Jonikok berriro areagotu zuen alde 3-1eko gol lasaigarriarekin eta 7 segundoren faltan Salldiasek itxiera eman zion azken emaitzari.

## Atezainaren lan bikaina

Akatsa litzateke Aratz atezainak egindako lan bikaina gorapatu gabe uztea, Endikaren baja garrantzitsua betetzeaz gain, bere taldearen salbatzaile bezala agertu eta neurketaren une erabakigarrietan maila erraldoia erakutsi baitzuen. Hasi berri duen hegaldiari etorkizun itxaropentsua iragartzen zaio eta heldutasunez lanean jarraitzen badu, Laskorainen proiektuaren zutabe garrantzitsu batean bilakatu ko da.

Datorren astean berriro etxean jokatu dute ikastolakoei La Bellota taldearen aurka. Sailkapeneko postu arriskutsuetan murgildutako taldea izaki, beste oztipo zail bat izango da ezbairik gabe tolosarren bidean. Larunbatean Usabalari Javi delegatua, Javi entrenatzailea, Aratz, Barriola, Telleria, Gil, Saldias, Belloso, Joniko, Ekhi eta Elola izan ziren garaipenaren protagonistak.

Harrobiari dagokionez, Aitorrek zuzenduriko bigarren taldeak 2-5 galdu zuen etxean.

# Fernandez eta Martinez bigarren postuari eutsiz

Barcelona World Race txapelketako 38. jardunaldia igarota Virbac-Paprec 3 ontzi frantziarra dute aurretik

## Erredakzioa

Barcelona World Race txapelketaren 40. eguna betetzear den honetan Xabi Fernandez ibartarrak eta Iker Martinezek gidatzen duten Mapfre ontzia lehia bizian da sailkapen orokorreko bigarren postua mantentzeko. Izan ere, azken egunetan asko gerturatu zaizkie Estrella Damm espainiarak eta Groupe Bel frantziarrak

Orain arte abiadura moteldu behar izan dute euskaldunek zenbait arazorengatik, baina hauek guztiak gaingaituta bigarren postua mantendu ahal izateko lehia bizian daude berriz ere. «Arazotxo pare bat izan ditugu eta horrengatik motelago joan behar izan gara, egun korapilatsuak izan dira, baina datozen egunak hobeagoak izango dira. Bigarren jarraitzen dugu, nahiz eta Estrella Damm oso gertu daukagun. Estropada oso interesgarri jarri da», argitu zuen atzo Iker Martinezek.

Zaparrada handi baten ondorioz bela batekin arazoak izan dituztela ere argitu zuen Martinezek. «Bela hori prest eduki nahi genuen eta konpondu egin dugu. Hemen gauza guztiak egiteko denbora jakin bat behar da, are gehiago orain, ez baitugu atsedan



Mapfre ontzia atzo (lehen irudia) eta Xabi Fernandez ibartarra larunbatean ateratako argazki batean. HITZA

hartzeko geratu nahi eta gutxi lo eta jan eginda jarraitu behar dugula aurrera, gainontzean etorkizuneko arazoak izan ditzakegu. Denbora pixka bat behar izan dugu, baina abian gara jada», gaineratu zuen atzo Martinezek.

Fernandez eta Martinezen hurrengo erronka Australiako muga eta Australia Ekialdeko atea bezala ezagutzen dena zeharkatzea izango da. Ibilbideko bi

puntu hauek flota hegoaldera ez jaisteko jarri dituzte antolatzaileek, bertan izozmendiak eta ur gaineko izotzak baitaude. «Adi egon behar gara ezbeharren bat ez gertatzeko», azaldu zuen Martinezek.

«Radarrak izozmendiak antzeman ditu, kontua da izotzik handienak antzematea erraza dela baina arazoak ikusten ez diren txiki-iki dugu», gaineratu zuen.

# Rojo anaiak bikain Beret-eko proban

## Erredakzioa Tolosa

Iraupen eskiko Pirinioetako proba ospetsuena da Beret-eko eta Joseba eta Imanol Rojo tolosarrek bigarren eta hirugarren postuak lortu dituzte hurrenez hurren. Josebak oso gertu izan zuen garaipena, irabazlearengandik, Vicenç Vilarrubla, bi segundora sartu baitzen helmugan. Vilarrublak 42 kilometroko ibilbidea egiteko 1:38:17ko denbora behar izan zuen. Josebak, beraz, 1:38:19 egin zuen eta Imanolek 1:41:32. Laura Orgue izan zen irabazlea emakumezkoetan 1:58:03ko denbora eginez.

Guztira 1.258 eskiatzailek parte hartu dute proba horretan. Egu-

raldi ona izan dute eta antolatzaileek gustura azaldu dira partehartzearekin. Hain justu, partehartzaileek orokorrean oso dibertigarria izan dela azaldu dute. Gogorra izan dela ere gaineratu dute, Beret-eko zonalde lauetan egin baita proba eta horrek eskiatzaileei besoak asko erabiltzera behartu die.

## Herrikoia

Proba oso herrikoia da eta punta-ko eskiatzaileez gain, famili giroan eta lagunartean parte hartu dute askok, horietako batzuk mozorrotua. Adinaren aldetik partehartzea ere oso zabala izan da eta sei urtetik 80 urte bitarteko eskiatzaileak izan dira.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**




**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

**Irudia** Amezketa



**AGURRIK BEROENA LAGUNEN ESKUTIK**

Garikoitz Altunak larunbatean esan zion agur erremonteari lagunez inguratuta zegoela. Herritik autobusa ere ateratzen zela Galarretara joateko eta une hunkigarriak bizitu zituzten Hernanin. Amezketa ezkerreko begi ondoan jasotako pilota-

kada batengatik utzi behar izan du erremontea, urtebete eta hilabete pilotalekuek urrun egon eta gero. Galarretan Ezkurra-San Miguel eta Zerberio-Urrutiaren arteko partida ere ikusi ahal izan zen omenaldia baino lehen. HITZA

**Agenda**

**DEIALDIAK**

- **Tolosa.** Laskorain ikastolak matrikulazio kanpainaren baitan informazio saioa antolatatu du Haur Hezkuntzako familia berrientzat gaurko. Hitzordua 18:00etan izango da Usabalgo areto nagusian. Hitzaldian Haur Hezkuntzako ezaugarriak eta atxikimendu prozesua azalduko dituzte.
- **Amezketa.** Katxalin elkarteak udalaren laguntzarekin, bularreko minbiziaren antzemate goiztiarraren inguruko hitzaldia antolatatu du gaurko. 18:00etan izango da balio anitzeko gelan. Hitzaldia 50 urtetik 69urte bitarteko emakumei zuzendutakoa da.

**ERAKUSKETAK**

- **Tolosa.** *Jeiki, jeiki* erakusketa Aranburu jauregian martxoaren 20a bitarte. Asteartetik igandera 17:30etik 20:30era ikusi daiteke.

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Bronte, C. I. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
- **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Agurrak**



**Urte askoan Sugaar!**

Urtebete da jada zoazen tokira zoazela poza ta zoriona eramaten! Jarrai ezazula bizitzan aurrera irifarre polit horrekin ingurukoak alaitzen! eta zalaparta eta eskandalua armatzen!

**Urte askoan!**

**Oihan Lopetegui Etxedona (Tolosa).** Gaur 3 urte. Zorionak eta muxu asko etxekoan eta Nahiaren partetik.

**Villabonako HEZKUNTZA PUBLIKOA**

Euskalduna, Denona eta Denontzat  
Proiektu bateratua, berritzailea, inguruan txertatua

Matrikulazio epea:

**Urtarrilaren 31tik  
Otsailaren 11ra**

Haur Hezkuntza Arroan (2-6 urte)  
Lehen Hezkuntza Arratzainen (6-12 urte)  
Tel.: 943 69 35 12 • Tel./Faxa: 943 691 413  
012277aa@hezkuntza.net

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza  
Arratzainen (12-16 urte)  
Tel./Faxa: 943 69 37 33  
012952aa@hezkuntza.net

**JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA**

**BEGIRISTAIN**

*tolare sagardotegia*

Asteartetik larunbatera afariak  
eta ostegunetik igandera bazkariak



Iturriotz baserria • 20267 Ikaztegieta • 943-65 28 37 - 607-36 57 43  
Faxa: 943-18 74 06 • s.begiristain@terra.es